



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

25 urte  
ago

Zenb./Nº 7  
Urtea/Año 2012  
Apirila/Abril

## WEB ORRI BERRIA

Getxoko Udalak, eta berarekin batera bere Erakunde Autonomoak, geure Musika Eskola barne, berritu egin du bere web orria. Orri berriak, diseinu moderno, atsegin eta erakargarriagoarekin, zuek guztiontzat informazio, hedapen eta kudeaketa-tresna izan nahi du.

Musika Eskolari dagokion atalean, geure historiari, geure hezkuntza-eskaintzari, ikasturtean zehar azpimarratu nahi ditugun gaiak, geure jardueri... buruzko informazioa aurkituko duzue. Administrazio-izapide jakin batzuk on-line egin ahal izan ditzazuten atal berezia garatu ahal izatea ere espero dugu.

Geure ustea, apurka-apurka eguneratu ahal izatea eta zuen interesa piztu ahal izateko moduko berri eta zerbitzuak eskaintzea da. Hobetu ahal izateko, zuen iradokizunak bidaltzeko gonbidapena zabaldu nahi dizuegu. Gustora hartuko ditugu eta erantzuna ematen saiatuko gara.


## 2012-13 IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA

Musika Eskola Digitalaren aurreko alean, datorren ikasturterako matrikulazioare inguruko lehen aurrerapena eman genizuen, 2012-13 ikasturtearen hasierarako unerik garrantzitsuenetakoa izatearen zergatiarekin batera. Ale honetan, zera gogorarazi nahi dizuegu:

2012-13 ikasturterako matrikulazio-datak apirilaren 16tik 27ra arte izango dira, 2. Mailaren 3. Moduluko eta 2. Mailaren 0 Moduluko ikasleentzat izan ezlik; hauek, maiatzaren 7tik 11ra arte izango dute, ez baitira kontaktua eta kontzertu didaktikoen zirkloa amaitu.

- Zuen irakasleek eman dizuete matrikula egiteko orria; Tutoreak dira zeintzuk diren zuen hizketa musikala betetzeko matrikulatu beharreko irakasgaiak hoberen azalduko dizuetenak.
- 1. Mailako 3. Moduluko eta 2. Mailako 0 Moduluko ikasleak, tresna lantzen hasiko zarete datorren ikasturtean. Horretarako, matrikula-orrian eta lehentasunez ordenaturik, jotzea gustatuko litzaizukeen hiru tresna adieraziko dizkiguzue. Ahal dugun neurrian, zuen eskaerei erantzuna ematen saiatuko gara.
- Matrikulazio-orriaren atzeko aldean, geure entzunaldi eta kontzertuetako grabaketan erabilerari buruzko atala gehitu dugu aurten. Azaldu bezala, grabaketa hauek xede didaktikoa besterik ez dute, baina norbaitek ez badu bereak erabiliak izatea nahi, ikaslearen izena bete eta ezkerreko aldean X-ren bidez seinatu.
- Zuek guztiok gurekin izatea datorren ikasturtean espero dugu. Mesedez, matrikulatzeko epeak errespetatu ditzazuen eskatzen dizuegu (ez ahaztu apirilaren 27a dela azken eguna); honek datorren ikasturteko antolakuntza asko erraztuko du, guztion onerako izango delarik.

Eskerrik asko,



## Gogoratu:

Ikasturtearen hirugarren hiruileko honen eskolak, hilabete honetako 16an hasiko dira.

Datorren ikasturterako matrikulazioa, apirilaren 27an amaituko da. 1. Mailaren 3. Moduluko eta 2. Mailaren 0 Moduluko ikasleentzat salbu; hauek, maiatzaren 7 eta 11 bitartean matrikulatu beharko dira.

## Hileko egutegia

Apirila

a	a	a	o	o		i	
							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

Jai-egunak
Eskolaren jarduerak
Jarduerak jai-egunetan

## AGENDA

Apirila

Apirilak 26: Perkusio-tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udaleko ikastetxeentzat, eta 17:45ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.